

Nafarroako Gobernuak bere jatorrien aurka?

Juan SAN MARTIN

Europako batasunaren Batzordeak 200leko urte hau bere barneko hizkuntzen urtetzat izendatu duenean, gezurra badirudi ere, Nafarroako Gobernuak bertako hizkuntza jatorra dn euskara baztertu nahirik edo 2000. urte bukaeran hartu dituen erabakiak ez dira zuzenak.

Antzina latinez *Lingua Navarrorum* zeritzalona, argi eta garbi utzi nuen *Giza eskubideen inguruan- En torno a los derechos humanos* (2000) liburuaren 68. orrialdean maiz alpatzen zen *Lingua Navarrorum* euskara zela. Inork horretaz zalantzarik ez izateko eran, hala agertzen denez José Gofli Gaztambidek bildurik argitara eman zuen *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona* (1997). Ikus liburu honen 269. orrialdea. Lehen tomo horretan datorren 305 dokumentuan, Iruñeko apezpiku zen Petrus II.ak 1167. urteko agirietan agertzen denaren arabera. Horregatik argitaratu nuen liburu horretan kapitulu bat "*Lingua Navarrorum*-en zoritxarra edo giza eskubiderik eza" izenburupean, 73-83 orrialdeetan, beste zenbait xehetasun gaineratuaz.

Erdi Aroan, Nafarroako Erregetzaren garaian, idatzietan gehienbat latina erabili zen. Baina inork ez zuen zalantzarik *Lingua Navarrorum* zeritzan hura beraien euskara jatorra zela.

1512. urtean Gaztelak Nafarroa menperatzean gauzak aldatu ziren. Hortaz zerbait jakin nahi duenak Irakur beza J. Yanguas y Miranda Nafarroako artxibari zenaren *Historia de la conquista de*

Navarra por el Duque de Alba, general del ejército del rey Fernando el Católico (1843) deritzan liburua.

Ordutik sartu zuten Nafarroan gaztelera. Eta orain, euskararen aurka ari den Nafarroako Gobernuak zer du horretaz esatekorik? 2001. urtea europarren hizkuntza naturaleza alde agerrarazo duen Europako Batasunaren Batzordeari ere kontra egin behar ote dio? Era horretara, nora goaz edo zertan gabilta ONU berak 1948an agertu zuen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren gomendio haiek kontutan hartu gabe? Gauza bera esan beharra dugu Unescoren 1953ko gomendiozko agiri hura alpatzeaz: *L'emploi des langues vernaculaires dans l'enseignement*.

Juan Carlos erregeak zentzu hobea erakutsi zuen 1976. urtean Dekretuz Euskaltzaindia onartzean, sarrerako hitzetan honela zioelarik: *"Hoy en general la preocupación que en España se siente por asegurar el mantenimiento y la supervivencia de esta lengua conservada, hablada y transmitida por el pueblo..."* Ondotik, 1918an Oñatin, Euskaltzaindiaren sorreran bere aitonak esan zituen hitzak gogoratu zituen. Azkenik era honetara bukatuz: *"Por ello nada mejor para la tutela e investigación de la lengua vasca que el reconocimiento por el Estado de la labor de esta Academia que Su Majestad el Rey Juan Carlos I quiere hacer patente, de acuerdo con las memorables palabras de se egregio abuelo"*. (Ikus Euskaltzaindiaren Euskera agerkaria, XXIV. 1978, 131-132 orrialdeak). Horrela izanik, zertara dator orain Nafarroako Gobernuaren burugabekeria hori? Erregeren esanei ere ez ote dio jaramonik egin behar?

Bere jatorriaren aurka jarri den Gobernu batengandik zer pentsa genezale? Gure hizkuntza bakar baten jabe direnen itsutasuna ote? Hala dirudi. Nafarroan bertan euskaraz ere aritzen direnak zer pentsatzen dutenaz arduratu gabe, ez deritzat legezko. Zeren hizkuntzak, bere baitarik, herrien izate naturalean oinarritzen baitira, eta ez da on politikaz era horretara nahasturik jartzea.

Oroi Euskaltzaindia lau probintzietako Diputazioek onarturik sortu zela. Nafarroako Foru Diputazioak bere onespren ofiziala eman zion 1919ko irailaren 3an. Eta erakundeak urre eztaletako bilera bereziak antolatu zituenean, orolgarri zalgu 1968ko abenduaren 4an Nafarroako Diputazioan egin zen ospakuntza, bertako diputatu nagusia buru zelarik eta Espainiako Akademien ordezkariak ere han zirelarik

(horretaz, ikus eta Irakur Euskera agerkariaren XVI. zenb., 1971. urtekoa, bere 16, 24-26 eta 199-203 orrialdeetan).

Euskaltzaindia, politikarien gainetik, era askotariko pertsonak osatzen dugu. Eta bere arautegiaren arabera, eginkizun nagusia, bereziki, lker eta jagon sailetan oinarritzen da, lau diputazioek onartu bezala. Horren arabera, Erakundearekiko eginkizuna, nire ustez, "Hizkuntza giza eskubideen arabera" zeritzan txostenean azaldu nuen. Uste dut, aski argi eta garbi agertu nuela (ikus zer nioen Euskera, XLIV, 1999ko lehen alearen 351-354 orrialdeetan). Askoz zabalago eta ageri gehiago emanez idatzi nuen alpatu dudan *Giza eskubideen inguruan - En torno a los derechos humanos* (2000) liburu horretan, eta gaiok zehatzago jakin nahi dituenak bertara jo behar du.

Bakoitzak har beza errua bere lepora, espainiar sentitzen direnek ere jakin beharrezkoa dute, euskara dela Espainiaren hizkuntzarik zaharrena eta aurka ari direnek, sineskaitza badirudi ere, bertako jatorrizko hizkuntza naturala eta zaharrena denaren aurka ari direla.